

Lehortearekin aberatsak ere egarritzen dira

Ur eskasia herrialde txiroen arazoa bakarrik ez da. Europako bazter askotan oso larria da jadanik. Ipar Amerikan, Nazio Batuen Erakundeak berak, AEBen eta Kanadaren arteko krisia aurreikusi du, lehenaren ur beharra dela eta. Klimaren aldaketa eta uraren kudeaketa txarra direla medio.

MARC LAIMÉ KAZETARIA DA, eta *Le Monde Diplomatique* aldizkariak bere webgunean erredaktore eta kolaboratzaileekin ipini dituen bloketako bat egiten du: *Carnets d'eau*, euskaraz “Uraren koadernoak” edo “Urezko kaierak” esan genezakeena. Laimé jakintsua da ur kontuetan. *Le Dossier de l'eau: pénurie, pollution, corruption* plazaratu zuen 2003an eta *Eaux glacées* (“Ur izoztuak”) izeneko bloka dauka martxan.

Carnets d'eau horretan uraren urritasunak munduan zehar sortu dituen tirabirak aipatu ditu, baina herrialde aberatsetan zentratuta. Artikulu baten tituluak dio “Uraren krisia: herrialde aberatsetan ere bai” eta besteak “Estatu Batuak Kanadako uraren egarri dira”. Lehenaren sarreran idatzi duenez, “gainerako herrialde garatuak bezala, Europa ez dago ur faltaren arriskutik libre, nahiz eta iruditu ohi zaigun hori herrialde txiroen kontua baizik ez dela. Klimaren beroketa, antolakizun desegokia eta baliabideen kudeaketa txarragatik, herrialderik aberatsetakoak ere mehatxupean daude. Okerragoa dena: oraindik milaka haur hiltzen dira Europar uragatiko gaixotasunen doriorioz”.

Europa zentzurik zabalenean hartuta, oraindik 140 milioi herritarrek etxean ez daukate ur egokirik. Populazioaren %16k alegia. Batik bat Ekialdeko Europako eta Sobiet Batasuna zeneko 17 herrialde aipatzen ditu Lai-

mék, Osasunaren Munduko Erakundearen irizpideei jarraiki. Hurbileneakoak Albania, Bosnia-Herzegovina, Bulgaria, Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia, Montenegro, Eslovakia eta Turkia dira, eta urrutikoenak Armenia, Azerbaijan, Georgia, Kirgizistan, Uzbekistan, Tadjikistan eta Turkmenistan. 13.000 ume hiltzen dira horietan guztietan urtero urarekin zerikusia duten gaixotasunengatik.

Egia da herrialde horiek gehienak Europaren periferiakoak direla, baina munduko zentroko aberatsenek ere badute zerekin kezkatua. World Wildlife Fund fundazioaren 2006ko txosten bat aipatu du Laimék, “Rich countries, poor water” –“Herrialde aberatsak, ur pobrea”– izeneko. Horretan aipatzen dira Australia, Espainia, Britainia Handiko zenbait eskualde, AEB eta Japonia bezalako kasuak. “Ekonomian aberatsizateak ez du esan nahi derrigor ur asko edukitzea”.

Europar, Atlantiko aldeko herrialde askotan behin eta berriro ari dira gertatzen lehortearak, eta bitartean, mediterraneoan, masa-turismoak eta laborantzak arriskuan jarri dituzte ur baliabideak. “Espainiak –dio zehazki Laimék– azken urteotan jasan du egoera bereziki kritikoa: esportazioari begira hegaldetan antolatutako nekazaritza intentsiboagatik, eta etxegintzan dagoen eromenagatik, Ipar Europako jubilatuentzako milaka eta milaka etxe-

Uragatiko borroka tropikoen inguruko herrialde atzeratu eta txiroen kontua direla uste da, baina inguru garatuetan ere hasi dira arazoak eta gatazkak berotzen. Europar –Espainia lekuko– eskualdeen arteko borroka areagotu dira, batzuek beren industria eta zerbitzuetarako besteek dauzkaten iturriak berenganatu nahi dituztelako. Estatuaren artean berdin. Adibidez, Kanadaren eta gero eta egarri handiagoz dabilzan AEBen artean. Australia aberatsetan hondamendia ari da gertatzen urteotan, lehorte luzea dela medio. Basoetan suteak pizten dira behin eta berriro, eta soro zabaletako laboreak arriskuan daude uraren gazitzeagatik. Argazkian, Australiako Wambo Shire eskualdeko laku bat. Afixak dio: “Aintzira eski, ontzi motordun, ureko motor, eta abarrentzako itxita dago, uraren maila apalagatik”. Idazki txit optimista, irudiak erakusten duenez.

bizitza luxuzko ari baitira eraikitzen. Anglosaxoien estiloan antolatutako urbanizazioetan milaka golf zelaik irensten dituzte dauden iturri guztiak”.

Herrialde garatuaren artean, Australia handia izango da denetan elkorrena, eta jasaten ari diren lehorte izugarriaz gain bertako uraren gazitzeak arriskuan jarri ditu labore eta soroak. Japonia berriz, ur askoren jabe da baina edaritarako behar duen iturri askotan kutsadura arazo larriak dauzka. Eta AEBetako eskualde askotan naturak eskaintzen diena baino askoz gehiago behar dute. “Leku aberatsenak ere zigortzen dituen krisi honek erakusten du ongizate materialak eta azpiegituren ugaritzeak ez dutela inor babesten ur eskasiaren, kutsaduraren, klimaren aldaketaren edo idortearen atzaparretatik, eta erreka, ibai eta hezeguneen babesa edo urez betetzeko moduko ordokiak berreskuratu beharra ez dagoela beste ezerekin ordezkatzetik”.

AEBek Kanadako iturriak nahi dituzte

“Estatu Batuak Kanadako uraren egarri dira” artikuluan Marc Laimék esplikatu duenez, AEB ahaleginak egiten ari da Kanada eta Mexiko kontinentzitateko uraren komertzializazio masiborako partzuergo estrategikoa osa dezaten. Gai honetan Washingtoneko agintariek Mexikokoak alde dauzkatela dirudi, baina Kanadakoek orain arte uzkur agertu dira. 2007ko



honetan AEB berriro kanadarrei presio egiten hasi dela dio Laimék.

Martxotik hasita uda bitartean, bilkura pribatuak antolatu dira “North American Future 2025 Project” egitasmoaren inguruan. Horietan Kanada, AEB eta Mexikoren integrazio ekonomiko estuagoa bultzatzen da. Argigarria da jardunaldiok AEBetako eta Mexikoko gobernuek finantzatuak izatea, eta aldiz Kanadakoak ez. Antolatzaileak Washingtongo Center for Strategic and International Studies izeneko *think-tank*a –aholkulari elkarte–, Conference Board of Canada eta Centro de Investigación y Docencia Económicas mexikarra dira. Heldu den abuztuan Albertan hiru herrialdeetako buruzagi nagusiek burutuko dute azterketa.

Proiektuaren arduradunak hau deklaratu omen dio irratia bati: “Denok

dakigu AEB ur faltan egongo direla. Eta denok gara jakitun Kanadak asko daukala. (...) Inork ez du bortxatuko Kanada bere ura saltzera. Proiektu hau analisi ahalegin bat da, ez besterik”. Zuhur mintzatu da, Kanadan gai honek zer nolako kezka sortu duen badaki eta.

Apiril honen 27an bildu dira Kanadako Calgaryn proiektu horren mamiaren kontra dauden ingurumenaren aldeko mugimendu batzuk. Baina horiez gain, Nazio Batuen Erakundearen klimaren aldaketarako batzordea ere kezkatuta dago. Honen informe batek dio AEB Kanadarekin gatazkan sartuko dela, haren Midwest –ipar-erdi aldea– egarriz gero eta itoago denez yankiek Laku Handietako emaria bereganatu nahiko dutelako.

Ez bakarrik ingurumenaren militantek, estrategiaren ikerleak eta agintariak ere kezkatuta daude kontuokin Kanadan. Beraietako batzuen hitzetan ageri da gatazka dagoeneko hasia dela. Kanadaren subiranotasuna eta independentzia defendatzeko herritar famatu batzuek sortutako erakundea da The Council of Canadians, eta bere kidea den Maud Barlowek esan du: “Aipatzen dugun proiektu horrek erakusten du AEBetako gobernu eta bere *think-tank*ak ari direla planteatzen ura ez kanadarrona balitz bezala baizik eta Ipar Amerika osoarena balitz moduan”. Council of Canadiansek gobernuari eskatu dio elkarrizketa horiek eten eta bertako parlamentura eraman dezala gaia, argitan eta luze aztertzeko.

Kontua da Kanadaren lurretan dagoela munduko ur geza guztiaren %20. Baina bertako herritarrak beldur dira dauzkaten aintzira eta ibai guztien edukiak desbideratzen badira %7an geratuko direla. Gainera, Kanadan bertan ere mendebaldean hasiak dira lehorre arazoekin.

Oraingoz AEBek mexikarrekin segiko dute elkarlanean, baina Kanada gero eta gehiago estutuko dute. NBEaren aipatu txostenaren arabera, ur behar gero eta larriagoa izango dute yankiek. Adibidez, milioika lagun asetzen dituen Texaseko akuiferoa jadanik %40raino omen dago murriztua. Eta Estatu Batuetako lurpeko ur-erreserba handiena, zortzi estatuko iturrietarako beharrezkoa den Ogallalokoa, agortzen ari da. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624